

NOLA ERABILI

4. GELTOKIA

Bideoa ikusi aurretik, gida didaktiko honetako orrialdeen kopiak egin eta ikasleei banatzea proposatzen dizuegu. Horrela, ikasleek bideoan ikusiko dutenaren berri izango dute eta errazago ulertuko dute bideoan esaten dena. Bideo-gelako saioak ikasitakoaren berrikustea izan behar du. Ikasgelan egindako lana finkatzeko saioa, alegia.

Bideoan hiru atal nagusi bereizi ditugu.

ADITZA

03:28

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

TRUKEA

04:12

Atal dramatiko luzea lantzeko zera proposatzen dizugu:

-Lau ikasleko taldetxoak egin.

-Gidoia irakurri, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

-Ekintza baten deskribapena. Laukote bakoitzeko partaide bakoitzak hainbat ekintzaz osatutako ekintza oso bat antzeztuko du, keinu bidez, gelakide guztien aurrean. Gelakideek zertan ari den asmatu behar dute. Zer daraman, zertan ari den eta abar.

Antzezleari antzezten ari den bitartean esango diote zertan ari den edo zer daraman eta antzezleak asmatzen duenari asmatu duela esango dio. Azkenean, ekintzatxo gehien asmatu duen taldeak irabazten du. Bukatzeko, antzezleak zer egin duen esaten die denei.

ADITZAREN ASPEKTUA

07:57

PROPOSAMENA

Atalari dagozkion orrialdeetako kontzeptuak eta adibideak landu, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

ADITZ LAGUNTZAILEA

11:03

INDIKATIBOA
SUBJUNTIBOA
AHALERA
AGINTERA

ATAL DRAMATIKO TXIKIAK

Gidoiak irakurri letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

Gidoien argudioaren laburpena egin. Hau da, gidoien argudioak modu laburrean idatziz eman, eurretan gertatutakoaren zergatiak argi agertuz.

OINARRIAK EUSKARAZ ABIATZEKO

4. GELTOKIA

ADITZA

Aditz perifrastikoak bi hitzetan banaturik agertu ohi dira, normalean.

Etorri naiz, joan da eta ekarri du **aditz perifrastikoak** dira.

Etorri, joan, ekarri, eraman eta egon **aditz nagusiak** dira.

Naiz, da, du, dut, da eta *zara* **aditz laguntzaileak**.

Aditz trinkoak, berriz, hitz bakar batez osatzen dira.

Nator, doa, dakar, daramat eta zaude **aditz trinkoak** dira.

TRUKEA

Espia talde batek trukea egin behar du parke batean.

IXA Eta? Zer berri, 002?

002 Bada, parkean ez **dago** inor, jauna.

IXA Ongi da. Eta zu? Non **zaude** zu?

002 Ni? Bada, ni... A! Bai, eskultura baten ondoan **nago** parkea ikusten.

IXA Ongi da. Eta liburua?

002 Liburua poltsan **daramat**. Hara! Mutil bat **dator**. Banku batera **doa**.

Eskuan liburu bat **dakar**. Bankuan eseri da... eta, liburua bankuan **ipini** du.

Bankura **noa**. Baina...

Orain, neska bat **dator**. Eskuan liburu bat **dakar**; beste banku batean **eseri da** eta liburua bankuan ipini du.

Arranopola! Zer egingo dut? Zein da kontaktua?

IXA Aukeratu bat, eta kitto!

002 Mutila, noski. Mutilaren bankura **noa**.

002-k telefonoa itzali eta bankuraino joaten da. Esertzen da eta liburua bankuan ipintzen du beste liburuaren ondoan. Mutilak bere liburua hartzen du eta irakurtzen hasten da. 002-k, harrituta, bere liburua hartzen du eta irakurtzen hasten da. Zeharka, mutilari behatzen dio. Mutila oso kontzentratua dago. 002-k poltsan sartzen du eskua eta telefonoa ateratzen du.

002 Bai, nor zara? Jon...

Mutilak begiratu egiten dio. 002-k, keinu bidez, barkamena eskatu eta, liburua hartuta, altxatu egiten da; eta, telefonoz hitz egiten balego bezala, neskaren bankura hurbiltzen da.

Azkenean, telefonoa gorde eta neskaren ondoan esertzen da. Liburua bankuan ipintzen du. Neskak 002-ren liburua hartzen du eta alde egiten du. 002-k beste neskak utzi duen liburua hartzen du eta ireki egiten du.

Liburu barruan orri bat dago. Orrian zera jartzen du:

"AUGUSTO BELA, 46-6.D"

002-k telefonoa hartu eta deitu egiten du.

002 IXA jauna? Kito, dena ezin hobeto atera da. Liburua eta oharra eskuan dauzkat.

002 bankuan IXA jaunarekin.

002 Hamaiketan parkera etorri naiz. Iturrian egon naiz parkea ikusten. Liburua poltsan ekarri dut. Hamaikak eta laurdenetan neska bat etorri da banku honetara. Neskak liburu hau ekarri du eskuan. Gero, ni banku honetara etorri naiz eta trukea egin dugu.

BERRIKUSTE AZKARRA

Eskulturaren ondoan **nago**.
Nerea eskulturaren ondoan **egon da**.

Eskulturaren ondoan **egon naiz** parkea ikusten.
Nerea eskulturaren ondoan **egon da**.

Neska bat **dator**. Eskuan liburu bat **dakar**.
Neska bat **dator**. Liburu bat **dakar**.

Neska bat **etorri da** eta liburu hau **ekarri du**.
Neska bat **etorri da** eta liburu bat **ekarri du**.

ADITZAREN ASPEKTUA

Jarraian, aditzaren aspektuari buruz hitz egingo dugu. Har dezagun *etorri naiz* aditz forma.

Aditz forma honek bi osagai dauzka: *etorri* eta *naiz*.

Aldi berean, lehenengo osagaiak bi osagai ditu: aditzoina *etor* eta aspektua *i*.

Etorri formak ekintza burutua adierazten digu.

Etortzen formak ekintza hasia dagoela, baina ez dela burutu.

Etorriko formak, berriz, ekintza gero gauzatuko dela.

Beraz, **etorri**: burutua, **etortzen**: burutugabea eta **etorriko**: gertakizun.

Ikus ditzagun orain hainbat forma.

NEREA Aupa, Mikel.
MIKEL Aupa, Nerea. Zinemara **joan naiz** eta pelikula oso ona ikusi dut.
NEREA A bai? Zinemara?
MIKEL Bai. Ostegunetan zinemara **joaten naiz**.
NEREA Kontxo, kontxo, bai ideia ona. Datorren ostegunean zinemara **joango naiz** zurekin.
NEREA Ados. Ai zu, Mikel, gaur goizean, Karlos bulegoan **egon da**.
MIKEL Karlos?
NEREA Bai, Karlos. Zurekin egon nahi du. Arratsaldetan, askotan, parkean **egoten da**, baina, ez da segurua. Gauean, elkartean **egongo da**, hori bai da segurua.

Orain, forma burutugabeari, *tzen* edo *ten* bukaera duenari, *ari naiz* gehituko diogu.
Ikusi adibide batzuk.

MIKEL

Liburu hau irakurri dut.
Liburu hau irakurtzen ari naiz.
Liburu hau gero irakurriko dut.

OIHANE

Horiek margotu ditu.
Hau margotzen ari da.
Haiek bihar margotuko ditu.

ADITZ LAGUNTZAILEA

Lehenago ere esan dugu, aditz perifrastikoetan bi zati bereizi ohi direla: aditz nagusia, aspektuaren marka daramana, eta aditz laguntzailea aldia, modua, pertsona eta numeroa adierazten dituen.

Atal honetan aditz laguntzailea aztertuko dugu.

Euskara batuak lau aditz laguntzaile jasotzen ditu:

izan	edun	edin	ezan
Etorri naiz	Apurtu du	Ikus dadin	Azter dezan
Joan zaio	Eman dio	Eser daiteke	On egin diezaion

Lau aditz horietatik bi NOR motakoak dira: *izan* eta *edin*; eta beste bi NORR motakoak: *edun* eta *ezan*

Aditz laguntzailearen paradigmak lau multzo nagusitan sailka daitezke:

Indikatiboa Subjuntiboa Ahalera Agintera

INDIKATIBOA

Ikusi ahal izan duzuen bezala, indikatiboan bi aditz laguntzaile ditugu: *izan* eta *edun*. Lehenengoa, *izan*, NOR motakoa da eta bigarrena, *edun*, NORK motakoa.

izan
Etorri naiz

edun
Ukitu dut

Bestalde, indikatiboan hiru aldi bereiziko ditugu.

ORAINA
Etorri naiz
Ukitu dut

IRAGANA
Etorri nintzen
Ukitu nuen

ALEGLIAZKOA
Etorri banintz
Ukitu banu

Oihane eta Nerea ikasten

- NEREA** Uuffa! Nekatuta nago, Oihane. Burua kontzeptuz beterik daukat.
- OIHANE** Bai, ni ere bai; lehertzeko zorian nago.
- NEREA** Zer ari zara ikasten?
- OIHANE** Inflazioaren kapitulua irakurtzen ari naiz.
- NEREA** Inflazioarena? Zu bai ausarta. Nik beldurra diot. Bihar irakurriko dut.
- OIHANE** Eta zuk, zer irakurri duzu?
- NEREA** Burtsaren kapitulua irakurri dut eta buruan suziriak dauzkat.
- OIHANE** Bai, burtsaren kapitulua zaila da, ulertzeko.
- NEREA** Gauza bat egingo dugu, Oihane. Bihar zuk niri inflazioaren kapitulua azalduko didazu eta nik zuri burtsarena azalduko dizut.
- Ados?
- OIHANE.-** Ados.

SUBJUNTIBOA

Subjuntiboarekin hasi aurretik, lehenago erakutsi dugun taula gogoratzea komeni da. Subjuntiboan *edin* eta *ezan* aditz laguntzaileak erabiltzen dira. NOR erako aditzek *edin* hartzen dute eta NORK erakoek *ezan*.

Subjuntiboko adizkiekin aditz nagusiaren aditzoina bakarrik erabiltzen da; hau da, aditz nagusiak ez du aspektu-markarik hartzen. Adibidez:

Etor dadin / uki dezan.

Subjuntiboan, indikatiboan bezala, hiru aldi bereiziko ditugu:

ORAINA
Etor dadin
Uki dezan

IRAGANA
Etor zedin
Uki zezan

ALEGLIAZKOA
Etor baledi
Uki baleza

Oihane eta Mikel ikasten.

OIHANE Anderrek deitu dit. Gurekin ikasi nahi duela esan dit.

MIKEL Beno, etor dadila. Esaiozu etortzeko. Hori bai, ikasia etor dadila.

OIHANE Zu zara, zu, Mikel. Eman dezagun ez duela ikasi.

MIKEL Orduan, ez dadila etor. Nik zuk ikas dezazun egiten dut hau dena. Ez ezazu pentsa.

OIHANE Jakina, Asisko Mikel deitzen dizute.

MIKEL Egin dezagun tratu bat Oihane. Zuk Anderren apunteak lortu eta nik afari ederra prestatuko dut.

OIHANE.- Ai! Mikel, Mikel, zuk asmatuko ez duzunik.

AHALERA

Ahaleran, subjuntiboan bezala, *edin* laguntzailea erabiltzen da NOR motako aditzekin eta *ezan* NORR motakoekin. Aditz nagusiak ez du aspektu-markarik hartzen. Bukatzeko, esan, ahalerako adizkiek *-ke* modu-marka daramatela. Ikus itzazue hiru ezaugarriok azkar-azkar.

Bi aditz laguntzaile.

Daiteke, NOR motakoa; eta, **dezake**, NORR motakoa.

Aditz nagusiaren aditzoina bakarrik erabiltzen da.

Etor daiteke eta uki dezake.

Ahaleran ere, hiru aldi bereizten dira.

Oraina: etor daiteke eta uki dezake.

Iragana: etor zitekeen eta uki zezakeen.

Alegiazkoa: etor liteke eta uki lezake.

Mikel eta Nerea ikasten

- NEREA** Ados nago. Nik goizez ikas dezaket, zortzietatik hamabietara.
- MIKEL** Hobe, horrela, nik arratsalde zikloa ikas dezaket.
- NEREA** Bai. Eta goizez erosketak egin ditzakezu.
- MIKEL** Erosketena beste kontu bat da. Ez dezagun dena nahas.
- NEREA** Beste kontu bat? Ez zaizu ezer kostatzen eta. Begira, hamarretarako dendara joan zintezke. Ordu horretan ez dago inor.
- MIKEL** Et, et, et, arratsalde ere egin daitezke erosketak; ala ez?
- NEREA** Bai, noski; arratsalde ere egin daitezke; baina, arraina, esate

baterako, ezin da arratsaldez erosi, ez bada izoztutakoa.

MIKEL

Hara! Gure markesa, arrain izoztua ezin jan?

AGINTERA

Agintera, batez ere, aginduak emateko erabiltzen da; baina nahiak, erreguak, aholkuak eta iradokizunak adierazteko ere erabil daiteke

Oihane eta Nerea, koadro bat ipintzen.

OIHANE

Nerea, zoaz atzera eta esadazu zuzen dagoen.

NEREA

Banoa. Igo ezkerreko alde, Oihane. Igo gehiago. Geldik hor.

OIHANE

Nerea, zatoz hona. Emadazu arkatz bat.

NEREA

Hartu arkatza.

OIHANE

Bukatu dut, har ezazu arkatza Nerea, eta ekar iezadazu taladroa.

NEREA

Tori, taladroa eta barautza.

OIHANE

Entxufa ezazu taladroa, Nerea, arren.

NEREA

Itxaron apur batean, komunera joan behar dut.

OIHANE

Ongi da, zoaz komunera.

Normalki, agindu, aurrean daukagun norbaiti agintzen diogu. Aginduak emateko hiru modu erabili ohi ditugu:

-Partizipioa erabiliz, hau da, aditz laguntzailea esan gabe.

-Aditz nagusia aspektu-markarik gabe eta aditz laguntzailea erabiliz.

-Aditz trinkoa erabiliz.

Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi:

Euskal Gramatika Osoa,
Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI,
Josemari:

Gramatika Gaitasuna Lantzen,
Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA:

Euskaltzaindiaren arauak,
Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

Orri elektronikoa

www.hiru.com